



2006ko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Euskal Legeak eta ekainaren 26ko 8/2013 Legeak, birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -barrikuntzari buruzkoak, ezartzen dabe 50 urtetik gorako bizitegi-erabilerako eraikin guztiek, katalogautako eraikinek eta eraikuntzek eta "antolamenduz kanpoko" kategorian sartutako bizitegi-erabilerako eraikinek EIT izan behar dabela.

Zer da EIT?

EIT egitura, fatxada, estalkia eta saneamentu- nahiz hornikuntza-sare komunen ikuskapena da, begiz egindakoa, eraikinak zer eraikuntza ezaugarri daukazan, zelako egoeran dagoen eta zer patologia izan ahal dabezan jakiteko. Eraikinaren ingurutzailerari eta instalazinoei buruzko datuak be jasoko dira, eraikinaren eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko, eta informazioa eukiteko irisgarritasun unibertsaleko oinarrizko baldintzei buruz eta desgaitasunen bat daukien pertsonak eraikinera iristeko eta ha erabilteko orduan diskriminaziorik ez egoteko baldintzei buruz, indarrean dagoen legediagaz bat. Halan, baldintza horreek betete aldera eraikinean arrazoizko egokitzapen edo doikuntzarik egin ahal dan ala ez erabagi ahalko da. Estaduko araudiaren arabera estaduko generako autonomia-erkidegoetan apliketan dan EETren (Eraikinen ebaluazino-txostena) baliokidea da.

2017ko ekainaren 27a baino lehen 50 urte beteten dabezen eraikinek **2018ko ekainaren 27ra** arteko epea izango dabe EIT aurkezteko. Data horretatik aurrera urtebeteko epea izango dabe, 50 urte beteten dabezenetik zenbatzen hasita.

EIT azterketa egiteko, beharrezkoa izango da gaitzen dauen titulazino profesional egokia izatea, urriaren 5eko 38/1999 Legearen, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoaren arabera.

Zeberion, 2017ko urtarrilaren 20an